



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko apirilaren 1a

47. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz egin dezan arte- eta kultura-entitateen proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko oinarrien deialdia, 2015ekoa, eta esleitzeko prozedura alda dezan. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak onetsia (2. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Ebro ibaiaren kudeaketa integralari ekin diezaioten eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako 2007/60/CE Zuzentaraua aplikatu dezaten. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea aldatzen duen lege proiektua erretira dezan. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan langileak sartzeko aurreko hautaprobea deialdietan edo enpresa pribatuetako hautaprobetan diabetesa duten izangaiek pairatu duten bazterkeria. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Errege Bardeako Komunitatea premiatzen dira Bardeako Tiro Poligonoa desegin dezaten. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak bazter utzia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Úriz Pi ahizpen figuraren eta haiek egindako ekarpenaren errekonozimendua egiten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko laguntzei buruzkoa. Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Gendulaingo udalez gaindiko plan sektoriala baimentzeko erabakiari buruzkoa. Idatziz erantzuteko galdera bihurtzea (7. or.).
- Galdera, Pirinioetako Autobiari buruzkoa. Idatziz erantzuteko galdera bihurtzea (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko lan-ordutegia eta Erregistroaren ordutegiaren aldaketa (8. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz egin dezan arte- eta kultura-entitateen proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko oinarrien deialdia, 2015ekoa, eta esleitzeko prozedura alda dezan.

KULTURAKO, TURISMOKO ETA ERAKUNDE HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordeak, 2015eko martxoaren 24an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz egin dezan arte- eta kultura-entitateen proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko oinarrien deialdia, 2015ekoa, eta esleitzeko prozedura alda dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urgentziaz egin dezan

arte- eta kultura-entitateen proiektuetarako diru-laguntzak arautzeko oinarrien deialdia, 2015ekoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du diru-laguntzak esleitzeko prozedura alda dezan, eta hartara urte anitzeko hitzarmenak egin ditzan Nafarroako kulturaren aski sustraitutako arte edo kultur entitateekin, beren jarduerak garaiz programatu beharra dutela frogatzen badute."

Iruñean, 2015eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Ebro ibaiaren kudeaketa integralari ekin diezaioten eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako 2007/60/CE Zuzentaraua aplikatu dezaten.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2015eko martxoaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Ebro ibaiaren kudeaketa integralari ekin diezaioten eta Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako 2007/60/CE Zuzentaraua aplikatu dezaten".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen ditu Ebro ibaiaren kudeaketa integralari ekin diezaioten, uraren aprobetxamendurik onena, uholde kasuetako kalteak minimizatzea eta oreka ekologikoa ziurtatuko dituen.

2. Nafarroako Gobernuak Estatuko Gobernua premiatzen du urgentziaz aplikatu dezan Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onetsitako 2007ko urriaren 23ko 2007/60/CE Zuzentaraua, uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzkoa."

Iruñean, 2015eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea aldatzen duen lege proiektua erretira dezan.

LANDA GARAPENENKO, INGURUMENENKO ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordeak, 2015eko martxoaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Estatuko Gobernua premiatzen da Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea aldatzen duen lege proiektua erretira dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten ditu Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea aldatzen duen lege proiektuko xedapenak, gizarte- nahiz ingurumen-interesaren aurkakoak izateagatik.

2. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du autonomia erkidegoek salbuespenak egin ahal

izatea oihan-erabilera 30 urteko epean aldatzeko debekuan, zeina orain arte erabatekoa baitzen.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea aldatzen duen lege proiektua erretira dezan eta parte-hartze prozesu bat abiaraz dezan ukitutako gizarte-eragileekin.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Alderdi Popularraren Gobernuak Mendiei buruzko Legea aldatze aldera Diputatuen Kongresuan aurkeztu duen proiektuaren aurka dagoela, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu behar diren neurri guztiak har ditzan Nafarroako Basozaintzako langileen eginkizun eta ahalmen legal eta juridikoak mantentzeko eta sendotzeko".

Iruñean, 2015eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan langileak sartzeko aurreko hautapropa deialdietan edo enpresa pribatuetako hautaprobetan diabetesa duten izangaiek pairatu duten bazterkeria.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Maite Esporrín Las Heras andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bertan behera utz dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan langileak sartzeko aurreko hautapropa deialdietan edo enpresa pribatuetako hautaprobetan diabetesa duten izangaiek pairatu duten bazterkeria"

Legebiltzarreko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2015eko martxoaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2015eko martxoaren 13ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Errege Bardeako Komunitatea premiatzen dira Bardeako Tiro Poligonoa desegin dezaten.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: "Mozioa. Horren bidez, Defentsa Ministerioa eta Errege Bardeako Komunitatea premiatzen dira Bardeako Tiro Poligonoa desegin dezaten.

egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2015eko martxoaren 20ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2015eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Úriz Pi ahizpen figuraren eta haiek egindako ekarpenaren errekonozimendua egiten baitu

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak aintzatetsi egiten ditu Úriz Pi ahizpen jardunbidea, Berrezarkuntzan eta II. Errepublikan zehar berrikuntza pedagogikoren arloan haiek egindako ekarpena eta emakumeen nahiz haurren eskubideekin eta askatasunaren, justiziaren eta demokraziaren balioekin izandako konpromisoa.

Nafarroako Parlamentuak ontzat jotzen du eta babestu egiten du Sarrigurengo ikastetxe publikoari Pepita Úriz Pi izena eman dakion hemendik aurrera, Úriz Pi ahizpen jardunbidea aintzateste aldera –bereziki, Pepitak berrikuntza pedagogikoa-

ren arloan egindako ekarpena–; izan ere, emakume berezi horrek Espainiak baino 50 urte lehenago besarkatu zituen abangoardia pedagogikoak, eta irakaskuntza eta moral tradizionaleri desafioa jo. Europan XX. mendearen hasieran sortu ziren pedagogia-korronte berrien defendatzaile sutsua izan zen Pepita, zeinak Gironako Emakumeen Eskola Arruntean pedagogiako irakasle lanpostua lortu baitzuen eta Lleidako Emakumeen Eskola Arruntean sartu baitzen irakasle 1921ean, Pedagogia, Eskola Zuzenbide, Anatomia eta Higieneko irakasle moduan, kasuko eskola-lehiaketa irabazi zuenean.

Iruñean, 2015eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko laguntzei buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut Krisian dauden Enpresak Salbatu eta Berregituratzeari buruzko

ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legeari dagokionez, zeina 26/2003 eta 185/2007 dekretuen bidez garatu baitzen geroago:

- Foru lege horretan ezarritakoari 2009an atxiki zitzaizkion enpresen zerrenda.

- Ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legearen 11. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritakoari atxiki zitzaizkion enpresen zerrenda.

- Ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legearen 22. artikuluari jarraikiz Europar Batzordeari igorritako urteko txostenaren kopia, 2009ko laguntza-araubidearen funtzionamenduari buruzkoa.

- 2009an emandako laguntzak direla-eta abiarazitako zehapen-prozesuen xehetasuna, zeinak ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legearen 23. artikuluan aurreikusten baitira.

- Ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legearen 11. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritakoa baliatu zuten enpresei buruz Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan 2009an aurkeztutako "azterlanak, planak eta gainerako dokumentazioa".

Iruñean, 2015eko martxoaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Gendulaingo udalez gaindiko plan sektoriala baimentzeko erabakiari buruzkoa.

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez eskatzen baitu idatziz erantzuteko galdera bihurtzea bere garaian Sustapen Batzordean ahozko erantzuna jasotzeko egin zuen ondorengo galdera hau: “Galdera, Gendulaingo udalez gaindiko plan sektoriala baimentzeko erabakiari buruzkoa,” hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatutako galdera idatziz erantzuteko galdera bihurtzeari dagokionez. Galdera 2015eko otsailaren 27ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Pirinioetako Autobiari buruzkoa

IDATZIZ ERANTZUTEKO GALDERA BIHURTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez eskatzen baitu idatziz erantzuteko galdera bihurtzea bere garaian Sustapen Batzordean ahozko erantzuna jasotzeko egin zuen ondorengo galdera hau: “Galdera, Pirinioetako Autobiari buruzkoa,” hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela aipatutako galdera idatziz erantzuteko galdera bihurtzeari dagokionez. Galdera 2015eko otsailaren 27ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko lan-ordutegia eta Erregistroaren ordutegiaren aldaketa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2015eko lan-egutegian ez dator zehaztuta zein izanen den hauteskundeak deitzeko foru dekretua onesten denetik parlamentu berria eratu bitarteko lan-ordutegia. Beraz, ikusita legelari nagusiak horri buruz adierazitakoa, eta bat etorritz Nafarroako Parlamentuko ordezkarien eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordearen arteko 2002. eta 2003. urteetarako Hitzarmeneko 3.2 idatz-zatiarekin, indarrean den Hitzarmeneko 10. idatz-zatiarekin eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 37. artikuluekin, hona ERABAKIA:

1. Mahaiak 2014ko abenduaren 9an hartutako erabakia aldatzea, zeinaren bidez 2015eko lan-

egutegia onetsi baitzen, eta 2. bis idatz-zati berri bat sartzea. Hona testua:

“2. bis. Apirilaren 1etik ekainaren 12ra bitarte, goizeko txandan beteko da lanaldia”.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2014ko abenduaren 15eko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2015eko apirilaren 1etik ekainaren 12ra bitarte, 09:00etatik 14:30era egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera